

Bigarren hizkuntzen irakaskuntzarako irakasleen formazioa: euskara

Feli Etxeberria

Egitasmoaren nondik norakoak

Jarraian aurkeztera noan lanak helburu bikoitza du; batetik, “Bigarren Hizkuntzen Irakaskuntzarako Irakasleen Formazioa: Euskara” graduondokoaren curriculumaren inguruko zertzelada batzuk eskaintzea eta, bestetik, graduondoko programak izaniko garapenaren berri ematea. Arlo akademikoari dagokionez, aipaturiko graduondokoa burutzeak helduen euskalduntze-prozesuan diharduen irakasleriaren formakuntza ahalbidetu du. Hori horrela izanik, HABEk unibertsitatearekin elkarlanean, irakasleriaren prestakuntzari ekiteko nahia edo borondatea azaldu zuen, modu honetara graduondoko ikasketak burutu izanak, ikasleriari titulu bat eskuratzeko aukera irekitzen ziolarik. Honela, HABEk eta HIZPEIk (EHUko Hizkuntz Pedagogia eta Ikerkuntza Metodoen Saila) lorturiko akordioaren ondorioz, graduondoko programa modu koordinatu batean aurrera eraman da. Iniziatiba hau, hizkuntzen irakaskuntza hezkuntza-teoriekin lotzeko interesa sortu den etapa edo aroan gauzatu dela esan behar da. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesu orok, irakasleei prestatzeko aukerak eskaintzen dizkie, bai curriculum-ereduak nahiz ikuspegi metodologiko ezberdinak euren eguneroko lanera egokitzerakoan eta baita, euren irakas-praktika eta praktika horietan lorturiko emaitzen ebaluaketari dagokionez ere. Beraz, ikusmolde honek irakasleen etengabeko prestakuntzari bidea irekitzen dio. Irakasleei informazio edo jakintza berria izaten lagunduko dioten eskola bidezko ikasgaiez gain, mintegiak ere antolatu dira, euren eguneroko esperientzian sortzen zaizkien arazo edo zalantzak aztertzeko eta horrekin batera ikerkuntza-ekintza eremuan murgiltzeko. Programak ez du irakaskuntza ulertzen ezagutzen transmisio soil gisa, baizik eta, ekintza ezberdinetan parte hartzeko aukerak eskainiz jarrera eta gaitasun berriak eskuratu edo garatzeko aukera moduan. Ondorioz, *metodologia* orokorrean eta batik bat mintegietan, parte hartzailea izan da.

Helburuak

Helburu nagusia helduen euskalduntzeko profesionalen formakuntza-prozesua zabaltzea eta adituak prestatzea da. Batetik, ikasketa-amaierako diploma-agiria lortzeko bitartekoak eskaintzen dira eta, bestetik, euren buruak prestatzeko ikasgai solteak lantzeko aukera ere ematen zaie.

Ikasketa-programak ondoko helburu zehatzagoak ere jarri ditu:

- Euskararen ezagutza hizkuntz sistema modura indartzea eta hizkuntzen irakaskuntzarako gaitasuna aberastea.
- Hizkuntzaren irakaskuntzarekin harremanean dauden diziplina ezberdinetako informazioa eskuratzea eta irakas-praktikarako berrikuntzaren norabideak jasotzea, teoria eta praktikaren arteko erlazioa lantzeko.
- Hizkuntz irakaskuntzaren berrikuntzak eskatzen dituen aldakuntza-planetarako jarrera baikorra garatzea.

Ikasketa- -programa

Egitura

Aipaturiko helburuei erantzuna eman nahian ikasleen egoera eta euren beharrak hartu dira abiapuntutzat. Lanean ari diren irakasleak direnez prestakuntzaren hartzaileak, errealitate honen zenbait alderdi kontuan hartu dira, hala nola, euren lan egiten duten lurraldea, lan-egutegia, ikasketa-maila eta helduen euskalduntze-alfabetatzean duten esperientzia, faktore horien eragina nabarmena baita antolaketa osoan. Eskola bidezko ikasgaiak ekainean, uztailan eta irailean landu dira, mintegiak, berriz, ikasturtean zehar egin dira. Ikasketen iraupena 520 ordukoa zen orotara. Programa malgua da, ikasleei ikasketak bost urtetan zehar burutzeko aukera eskaintzen dielarik. Ikas-programa ikas-multzo ezberdinek osatzen dute.

Edukien inguruko aurreikuspegia eta antolakuntza

Ikasgaia arlo desberdinetan antolatu zen, hautaketa egin aurretik mintegietan eztabaidatu zen irakatsi beharreko ikas-arloak zeintzuk izango ziren. Bertan hainbat hizkuntzaren irakaskuntzako arduradun adituek parte hartu zutelarik. Hezkuntzan hizkuntzari eman zaion trataera, barruko mekanismoen ikerketara mugatu izan da askotan. Baina, joera hori antzu geratu da ikasleek bereganatu beharreko hizkuntza-trebetasunetan. Hizkuntza hausnarketa, lexikoa, sintaxia eta semantikari lotzen zitzaion, baina komunikazio-intentzioa, komunikazio-trukean pautak soziokulturalak duen eragina, hizkuntz erabilpena hizkuntza-irakaskuntzan eta ikasle subjektuaren nola ikastaldearen motibazioa eta berauek irakaslearekiko sortzen duten harreman-giroari ere garrantzia ematen zaio. Bestalde, ikasleek irakaskuntza-prozesua bideratzeko irizpide psikopedagogikoen beharra dute. Garrantzitsua iruditzen zaigu ikasleak hezkuntza eta irakaskuntza prozesuen analisirako trebatzea. Ikuspegi honetan oinarrituz, hizkuntzaren kontzeptualizaziorako teoria eta ereduak aurkeztu nahi dira, alde batetik, eta, bestetik, norbanako eta gela—taldearen ezaugarri diferentzialetan oinarrituz, hizkuntzen irakaskuntza azaldu nahi da. Ildo honetatik, garrantzi handia hartzen dute eremu teoriko ezberdinen ekarpenek, hala nola, hizkuntzalaritzaren ekarpenek, batez ere, pragmatika eta testuari dagokienez. Arlo hauen inguruko ezagutzek hizkuntzaren alorreko curriculumean eta bigarren hizkuntzen jakakuntzarako jarraituriko programa eta metodologietan eragina baitute. Hizkuntzen irakaskuntzarako metodoak hizkuntz teoria eta irakaskuntzaren psikologiaren aspektu zehatz batzuetan oinarritzen dira. Ondorioz, irakaskuntza-prozesu bati ekin aurretik, irakaskuntza hori garatzeko beharrezkoak diren

diseinua eta prozedurak zehaztea edota planifikatzea beharrezkotzat jotzen da. Helburuak, programak, harremanak, irakaskuntza-material eta irakas-tekniken inguruan pedagogiak eskainiriko ekarpenak oso garrantzitsuak dira. Hizkuntzen irakaskuntzan irakasleen funtzioa funtsezkoa dela ikusirik eta beraiek aurkezten dituzten zalantzei arreta eskainiz, prestakuntza aurrera eramateko ideari jarraitu genion.

Bestetik, eduki-multzoak hizkuntzen irakas-ikaskuntzarako edozein ekintza pedagogiko bideratzeko ezagutza orokorrak eskaintzen dituzten moduan antolatuak daudela esan behar da. Ezagutza hauek besteak beste, ondoko alderdiok ukitzen dituzte:

- Hizkuntza eta hizkuntz-ikaskuntzaren izaerari dagozkienak.
- Komunikaziorako tresna moduan irakasten den hizkuntzaren ezaugarriak.
- Hizkuntza ikasi behar duten subjektuen artean aurki daitekeen aniztasuna (behar, itxaropen etabarri dagokienez).
- Hizkuntzaren irakas-ikaskuntza prozesuan jarraituriko ikuspegi metodologiko eta irakasle eta ikasleen rolei dagozkienak.

Ikas-arloak

Hizkuntzaren ikuspegi integratzailea. Hizkuntzalaritza aplikatuak badu zer esanik euskararen irakaskuntzan. Aparteko arreta merezi dute, noski, euskararen beraren deskribapenak, ikas-irakaskuntzan zailen gertatzen diren hizkuntz formek, euskarazko komunikazioaren zer-non-nolakoek, aldameneko hizkuntzekiko aldeek... Bigarren hizkuntzaren irakaskuntzari dagokionez, helburuak ezin dira gramatikaren ikuspegitik soilik planteatu, izan ere, hizkuntz gaitasuna izateko beharrezkoa baita beronen osagaiak menperatzea, fonologia, sintaxia, lexikoa etabar, alegia. Hizkuntza komunikaziorako tresna kontsideratzeak, irakasleak alderdi ezberdinak hausnartu beharra dakar berarekin batera, hala nola, soziolinguistika, pragmatika, diskurtsoa, eta gramatika. Beraz, komunikazio-gaitasuna ahalik eta gehien garatzea da hizkuntz arloko irakas-ikaskuntzaren helburua. Horretarako, gaitasun horren osagaien argitzea ezinbestekoa da irakaslearentzat. Hizkuntza indartzeko ez da nahikoa aspektu formalen ezagupen formatiboa ematea, garrantzitsua bada ere. Hizkuntza irakasteak honez gain, hizkuntzaren erabilera sozialak eta komunikaziorako trebetasunak irakastea eskatzen du. Komunikazio-gaitasunaren kontzeptuak, gaitasun linguistikoaren gain honako beste azpigaitasun batzuk hartzen ditu bere gain: estrategikoa, diskurtsiboa eta soziokulturala. Honek guztiak, bere ondorioak ditu bai irakaskuntzarako bai ebaluaziorako. Dena den, ezin liteke esan gaitasun komunikatiboaren garapenerako gaitasun gramatikala beharrezkoa ez denik. Aipatu gaitasunen arteko elkarreragina zaindu behar da irakaskuntzako testuinguruan. Guztira 120 orduetan landuko da hizkuntzaren arloa, honako lau gai haue-tan banatuta:

- Kontzeptu linguistikoak (4 kreditu).
- Komunikazioa: egitura, iturriak eta tipologia (3 kreditu).
- Hizkuntza eta kultura (3 kreditu).
- Euskararen irakaskuntzarako analisi kontrastiboak (2 kreditu).

Ikastaroak

Ikasketa-plana osatzen duten gaiak zortzi ikastarotan banatuta daude. Horrelako ikastaroak astero eskaini dira. Horretarako, derrigorrezkoa da 15 eta 25 bitarteko ikasle-taldea osatzea.

Graduondoko ikastaroa eskaintzeko, 52 kredituak gainditu beharko dira ikasketa-planak dirauen bitartean. Ikasprogramak bere koherentzia eta barne-lotura du. Baina, halere, ikasle bakoitzaren esku geratzen da zer noiz landu aukeratzea, bakarkako memoria izan ezik; berau egin ahal izateko, beste zazpiak gainditu beharko baitira. Halere, M1 mintegia aurren eta M3 azken egitea gomendatzen da; eta bi mintegi gehienez ikasturtean.

Ikastaroa da matrikulaziorako unitatea. Hona hemen ikastaroak gaika banatuta:

.1:

ESKOLA BIDEZKO MODULUAK	E-1	ELEBITASUNA H ₁ ETA H ₂ -REN JABEKUNTZA
	E-2	PROGRAMAZIOAREN DISEINUA: PROZESU DIDAKTIKOEN PLANIFIKAZIOA, FASEAK, SYLLABUSAK, IKASTARO-MOTAK, EBALUAZIOA ETA AKATSEN AZTERKETA ETA TRATAMENDUA
	E-3	KONTEPTU LINGUISTIKOAK HIZKUNTZA ETA KULTURA EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO ANALISI KONTRASTIBOAK IRAKASKUNTZARAKO METODOLOGIEN OINARRIAK METODOEN ANALISI PRAKTIKOA ETA EBALUAZIOA
	E-4	KOMUNIKAZIOA: EGITURA, ITURRIAK ETA TIPOLOGIA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAREN ALDERDI NEUROLOGIKOAK, PSIKOLOGIKOAK ETA SOZIALAK HEZKUNTZA-HARREMANAK: IRAKASLE-IKASLEEN ROLAK EUSKARRIAK: TRESNEN ETA MATERIALEN SORKETA, ANTOLAKETA ETA ERABILPENA
MINTEGI BIDEZKO MODULUAK	M-1	TREBETASUN LINGUISTIKOAK
	M-2	IRAKAS-ESTRATEGIAK ALDERDI BEREZIAK ETA MAILEN BIDEZKO IRAKASKUNTZA; HIZTEGIA, GRAMATIKA, FONETIKA
	M-3	IRAKASKUNTZA-PRAKTIKA BABESTUA BEHAKETA, MIKROIRAKASKUNTZA
	A	"IRAKASKUNTZA GELAN" (BAKARKAKO MEMORIA)

Ebaluazioa

Ebaluaziorako irizpideek irakasle eta ikasleen artean negoziatutako lan-metodologiarekin zer ikusia dute, alde batetik, eta, bestetik, irakaskuntzaren antolaketarekin. Irakasle ikasleek elkarrekin egindako lana eta elkarren arteko etengabeko harremanak izango dira ebaluazioaren oinarri. Programaren joanean egingo den ebaluazioari emango zaio lehentasuna, nahiz eta amaierako frogak ere erabakiorrak izango diren. Ez da gauza bera ikasgaiak modu trinkoan eskolordutan lantzea edota epe luzeagoan mintegi bidez lantzea. Azken aukera honek bai irakurketarako eta baita lan pertsonalak aztertzeko ere egokiera hobetzea eskaintzen du. Bestalde, kontuan hartuko da, jakina, asistentzia (ezinbestekoa %80), bakoitzaren jarrera, lana eta parte hartzea. Ikastaroa gainditu ezean berriro matrikulatu beharko dute ikasleek.

Ikaslearen profila

Euskararen irakaskuntzak pisu handia du egungo euskal gizartean. Baita helduen artean ere; urtero 40.000 heldu ari dira euskara ikasten eta 1.800 irakasleek dihardu irakasten. Gizartearen zati handi bat ari da euskalduntzeko ahalegin horretan, hainbat euskaltegitako irakasleen eraginpean. Gero eta baliabide ugariago eta egokiagoak ditugu eskura, baina gero eta irakasle adituen premia handiagoa sumatzen da. Premia horri erantzun nahian eratu zen graduondoko ikasketa saioa, helduen euskalduntzean diharduten irakasleak eguneratzeko eta prestatzeko. Askotan irakaslearen ikasketa-maila eta hizkuntz gaitasunari garrantzia eman zaio, beharrezkoa dena, eta ez horrenbeste hezkuntza-prestakuntzari. Graduondoko ikasketak egitera etorritako ikasleen ezaugarriak aldagai desberdinen baitan (.2) azalduko ditugu hemen.

.2:

Ikasleen profila

Adina

Adin-tartea	Ikasleak	Portzentaiak
26-30	23	15,6
31-35	62	42,2
36-40	31	21,1
41-45	16	10,9
46-50	5	3,4
51-55	7	4,8
56-60	1	0,7
61-65	2	1,4
	147	

Sexua

Sexua	Ikasleak	Portzentaiak
Gizonezkoak	62	%38,75
Emakumezkoak	98	%61,25
	160	

Euskalduntasuna

	Kopurua	Portzentaiak
E. zaharra	116	78,9
E. berria	31,1	21,1
	147	

Ikasketa-maila

Ikasketak	Ikasleak	Portzentaiak
Lizentziatura	60	40,8
Diplomatuta	11	7,5
Magisteritza	35	23,8
HABEk homologatua	23	15,6
UBI edo LH II	9	6,1
Bestelakoak	9	6,1
	147	

Ikasle gehienak %61,25 emakumeak dira. Ikasleen %78,9 26 eta 40 urte bitartean dago. Unibertsitate-ikasketak dituztenak %72,1 HABEk homologatuak %15,6 Homologazio-arazoak izan zitzaizketenak (UBI edo LH II eta bestelakoak) %12,2. Ikasleen %78,9 jatorriz euskalduna da, euskaldun berrien kopurua txikiagoa delarik.

Homologazio-arazoak izan zitzaizketen ikasleen %12,2 horiek homologazioa lortzeko bide ezberdinei jarraitu diete; batzuek graduondokoaren bidez lortu dute, beste batzuek meritu-lehiaketa bidez, eta, azkenik, beste batzuek HABEekin hitzartutakoaren arabera lortu dute. Meritu-lehiaketa bidez lortutakoaren artean badira graduondokoa amaitu dutenak, memoria burutzea soilik falta zaienak graduondokoa amaitzeko, edota modulu edota mintegiren batean parte hartu dutenak.

.3:

Ikasleak sareka

Sarea	Ikasleak	Portzentaiak (1)	Irakasleak	Portzentaiak sarearekiko
Publikoa	95	59,4	518	18,3
Bertan	15	9,4	383	3,0
IKA	21	13,1	227	9,2
AEK	3	1,9	924	0,3
Besterik	16	10,0	197	8,1
Ezezagunak	10	6,2	-	
	160	100	2.249	-

(1) Besterik: sareetatik kanpo dagoen euskal-tegi-multzoa biltzeko erabiltzen dugun konbentziozko izena.

(2) Irakasle-kopuru erreala ez da bi milara iristen. Irakasle batzuk euskaltegi bat baino gehiagotan, eta sare bat baino gehiagotan aritu izanari zor zaio kopuru hori.

.4:

Ikasleak lurraldeka

	Ikasle-kopurua	Portzentaiak	Irakasleak lurraldeka	Portzentaiak	Portzentaiak lurraldearekiko
Araba	19	15,3	422	18,8	4,5
Bizkaia	76	61,3	1.149	51,1	6,6
Gipuzkoa	29	23,4	678	30,1	4,3
	124		2.249		

* Datuok ez dira erabat zehatzak, bai baita irakasleren bat edo beste lurralde bat baino gehiagotan aritutakoa (hilabete batzuetako ikastaro bat lurralde batean eta beste hilabete batzuk beste batean).

Ikasleen gehiengoa %61,3 Bizkaikoa da. Orotara irakasle kopurua %51,1; lurralde horretakoa den bezala. Jarraian, ikasleen %23,4 gipuzkoarrak dira eta gutxiengoa, %15,3 arabarra.

.5:

Esperientzia helduen euskalduntze/alfabetatzean

Esperientzia-urteak	Ikasleak	Portzentaia
11	76 (1)	51,7
10	14	9,5
9	8	5,4
8	8	5,4
7	17	11,6
6	5	3,4
5	5	3,4
4	4	2,7
3	4	2,7
2	2	1,4
1	4	2,7
	147	

(1) Gehienek esperientzia, %51,7rena hain zuzen ere, 11 urte baino gehiagokoa da. Ikasleek %31,9k, 7 eta 11 urte bitarteko esperientzia du, eta zazpi urtetik behera dutenak ikasleek %16,3 dira.

Beraz, datu hauetan oinarrituz, zera esan dezakegu: ikasle-kopuru handienak (%72,1) unibertsitate-mailako ikasketak dituela. UBI/ LH II edo bestelako ikasketak dituzten ikasleek ikasleek %12,2 dira, horietatik direlarik homologazio-arazoak izan zitzaizkienak. Ikasle hauek bide ezberdinei jarraituz, hala nola, graduondokoa gaituz, meritu-lehiaketa bidez etab. homologazioa lortu dute. Hizkuntz irakaskuntzan eskarmentu handiko ikaslerik bada, %83,6k bi urtetik gorako esperientzia baitu. Hizkuntza alderdiari begira, %78,9k bere jatorrizko hizkuntza euskara du, euskaldun zaharra da, alegia. Ikasle gehienak bizkaitarra da. Lan egiten duten euskaltegiei begira, ikaslerik gehienak sare publikotik etorriak dira, %59,4 hain zuzen ere.

Irakasleak

Partaidetza orokorra

Guztira 33 irakasle hartu du parte: 16 emakumezko (%48,5) eta 17 gizonezko (%51,5).

.6:

Irakasle partaidetza orokorra

	Kopuruak	Emandako orduak	Orduen batez bestekoa
EHU	8	533	66,6
Deustuko unibertsitatea	4	216	54
Kanpoko unibertsitatea (1)	8	320	40
Freelance eta beste	8	391	48,8
HABEko teknikaria	5	1.280	256
	33(2)	2.740	83

(1) Bartzelonako Unibertsitateko 4 irakasle, Castellóko Jaume I Unibertsitateko hiru irakasle eta Erromako La Sapienza Unibertsitateko irakasle bat. (2) Irakasle ezberdinak 32 izan dira. EHUko batek parte hartu du E2 eta Irakasle partaidetza, batez beste, 46,2 ordukoa izan da.

.7:

Irakasleen partaidetza mintegietan

	M1		M2		M3		M4		Guztira	
Irakasleak	Kop.	Ord.	Kop.	Ord.	Kop.	Ord.	Kop.	Ord.	Kop.	Ord.
EHU			1	180					1	180
Deustuko U.										
Kanpoko U.										
Freelance eta beste										
HABEko teknikariak	3	450	1	180	3	300	1	150	8	1.080
	3	450	2	360	3	300	1	150	9(1)	1.260

(1) Irakasle ezberdinak 5 izan dira. HABEko teknikari batek 4 mintegietan hartu du parte eta beste batek bitan.

Irakasleen partaidetza, batez beste, 252 ordukoa izan da.

Ikasgai asko landu dira eta irakasle desberdinek parte hartu dute. Hasieratik zaindu nahi izan da gai desberdinen arteko lokera. Ikuspegi integratzailea behar-beharrezkoa da ikasleak eduki desberdinen esanahia eta zentzua aurkituko badu irakaskuntzarako. Horretarako eskakizun zehatzak egin zaizkie irakasleei programaren eraketa eta lan-metodologiari. Gaienez berezitasunak ikas-arlo desberdinetako irakasleen parte hartzea eskatu da eta, pedagogoak, psikologoak, hizkuntzalariak, soziologoak eta HABEko teknikariak glotodidaktikan adituak aritu dira. Bestalde, jatorri ezberdineko irakasleek parte hartu dutela esan behar da, honela irakasle euskaldunak, eta erdaldunak izan dira prestakuntza-lan horietan. Azken hauek bai Estatu espainiarreko beste unibertsitateetatik nahiz kanpoko unibertsitateetatik etorriak dira eta ondorioz, gaiak hizkuntza ezberdinetan garatu beharra zegoen.

.8:

Burutu diren ikas-moduluak

	E1	E2	E3	E4
	20 ordu	60 or.	120 or.	120 or.
92-93	1	2	2	-
93-94	1	- 1	1	
94-95	1	1	1	1
95-96	1	1	1	2
96-97	1	1	-	
	5	5	5	4

	M1	M2	M3	A
	50 or.	60 or.	60 or.	30 or.
92-93	3	---		
93-94	1	3	1	-
94-95	3	1	2	1
95-96	1	1	1	1
96-97	1	1	1	3
	9	6	5	5

	Moduluak (guztira)	Partaideak	Irakasleak	Orduak
92-93	8	138	28	530
93-94	8	113	16	550
94-95	11	161	18	680
95-96	9	122	23	630
96-97	8	103	7	340
	44	637	92	2.740

.9:

Kokalekuak

	E1	E2	E3	E4	M1	M2	M3	A
92-93	Donostia (1)	Bilbo Donostia (2)	Bilbo Donostia (2)	-	Donostia Galdakao Zornotza (3)			-
93-94	Zornotza (1)	-	Zornotza (1)	Zornotza (1)	Zornotza (1)	Donostia Zornotza Galdakao (3)	Zornotza (1)	-
94-95	Zornotza (1)	Zornotza (1)	Zornotza (1)	Zornotza (1)	Gasteiz Leioa Zornotza (3)	Zornotza (1)	Donostia Zornotza (2)	Donostia (1)
95-96	Zornotza (1)	Zornotza (1)	Bilbo (1)	Bilbo Donostia (2)	Zornotza (1)	Bilbo (1)	Bilbo (1)	Donostia (1)
96-97	Zornotza (1)	Zornotza (1)	-	-	Bilbo (1)	Bilbo (1)	Bilbo (1)	Donostia (3)
	5(100)	5(300)	5(600)	4(480)	9(450)	6(360)	5(300)	5(150)
				19(1.480)	<i>Guztira mintegiak (guztira orduak)</i>			
								25(260)

Guztira 19 ikastaro eta 25 mintegi eskaini dira. Ikastaroen % 57,8 Zornotzan, %21 Donostian eta beste horrenbeste Bilbon. Mintegien %32

Zornotzan, beste horrenbeste Donostian. Bilbon %20. Zornotza Euskal Autonomia Erkidegoko erdigune modura aukeratu zen. Ikastaro eta mintegi guztien (44) %43,2 eman da Zornotzan (19), eta ordu lekutibo guztien %43,06.

**Partaidetza eta
aprobetxamendua**

.10:

Ikasleak eta modulu-kopuruak

	Ikasleak	Gainditutako moduluak	Ez gainditutako moduluak
1	63	43	20
2	22	31	13
3	10	18	12
4	7	25	3
5	4	20	0
6	2	11	1
7	1	7	0
8	51	398	19(1)
	160	553	67

(1) 6 ikaslek 8 modulu errepikatu dituzte, lehen ahaleginean gainditu ez dituztelako.

Graduondokoa osorik gainditu dutenak 51 ikasle izan dira. Ikasleek euren gustuko moduluak hartzeko aukera izatea izan daiteke 1 edo 2 modulu eginda graduondokoa utzi izanaren arrazoia.

.11:

Modulu-kopuruak / moduluak	1	2	3	4	5	6	7	8	Σ
E1 (20 ordu)	13	6	6	4	4	2	1	52(1)	88
E2 (60 ordu)	15	5	5	5	4	2	1	53(1)	90
E3 (120 ordu)	3	2	-	2	1	2	1	51	62
E4 (120 ordu)	-	6	1	2	2	-	1	51	63
M1 (50 ordu)	30	16	7	7	4	2	1	52(1)	119
M2 (60 ordu)	2	7	5	6	4	2	1	51	78
M3 (60 ordu)	-	4	4	2	1	2	1	55(1)	69
A (30 ordu)	-	-	-	-	-	-	-	-	51
									620(2)

(1) Zortzi moduluak egindakoen artean 6 ikaslek moduluaren bat gainditu ez eta errepikatu egin behar izan dute gainditzeko. Horietako bostek bana errepikatu dute, eta batek 3 ikastaro errepikatu ditu.

(2) Datuok matrikula egin duten 160 pertsoneri dagozkie. Atal honetan ez dira aztertzen entzuleek egin dituzten 21 moduluak.

**Ondorio
orokorrak**

Lehenik esan behar da aurrera eramán den programak bere gazi-gezak izan dituela. Antolakuntza ez da gauza erraza izan, bost urteetan zehar (1992-97) ikastaro guztiak bi urteko epe motzean edota bost urteko epean egiteko aukera eskaintzen baitzitzaion ikasleari. Epe luzearen arriskua irakasleak aldatu behar izatean zegoen, gure nahia irakasle-talde

bera mantentzea bazen ere. Ikastaroak noiz eta non landuak nahiko buruhauste eragin zuen. Aipatu bezala, ikasleak lurralde desberdinetako euskaltegietako irakasleak baitziren eta denbora aldetik urri baitzebiltzan. Ondorioz, beraien egoerara egokitzeko ahalegin bat egin zen bai ikastaroen kokaguneari zegokionean bai egutegiari zegokionean. Ikasleek asko jarri zuten euren aldetik, hasteko denbora eta dirua eta, bestalde, aldi berean lanean aritzeak eta ikastaroa burutzeak eragiten dien nekea leudeke. Halere, beharren arabera bakoitzak jakin du bere moduko antolaketa egiten eta ikastaroak burutzen. Gure ustez, ia heren batek graduondoko osoa egitea programaren etekin ona da. Gainera kontuan hartuta graduondokoaren bidez homologazioa lortu dutenen kopurua 2koa dela. Beraz, gehiengo baten helburua formakuntza izan da. Bestetik, amaitu ez dutenen artean arrazoi ezberdinak daude: prestakuntzarako modulu bakar batzuen aukera egitea, homologaziorako behar ez izatea, nekagarriegia gertatzea eta bestelakoak. Halere, aipatzekoa da guztia amaitu dutenen balorazioari buruzko aipamenak:

- Informazio akademikoa jaso dugu, baina memoriaren txostena lantzerakoan ulertu dira zenbait kontzeptu.
- Lanak ikerketa eskatu du eta honen nondik norakoa: gaiaren hausnarketa, nola heldu formakuntzari eta zer baliabide erabili korapilotsua izan da. Baina, kezkak taldean hausnartuz, teoria egunerokoarekin erlazionatzen ikasi dugu.
- Ohikoa ez den zerbaitetan jarduteak bide berriak irekitzen ditu. Memoriarako egindako lanak berrikuntzarako ulermen-gaitasuna handitu du.
- Hasieran ulertzen eta baloratzen ez zen hura eguneroko jardueran aurkituarazi du gelako ikerketak. Teoriatik lan-esparruko berrikuntzara bultzatzeak aldaketa biziartzen du, eta epe motzean zenbait ondorio ikertzea ere bai. Ikasgelan egiten den esperientzia berritzailea eremu zabalagora luzatu beharra azaldu da.
- Berrikuntza pedagogikoarekin identifikatzen lagundu du eta norbere buruari begira egotetik lankideekin uztartu beharra ikusarazi du.
- Topagune aberatsa gertatu da informazioa eskuratzeko, lanerako balioa sumatzeko eta taldeko harremanak sortzeko.

Graduondokoa burutzea garrantzi handiko esperientzia suertatu da HABEk eta HIZPEIk (EHUko Hizkuntz Pedagogia eta Ikerkuntza Metodoen Saila) elkarlanean jardun dutelako helburu komun baten inguruan. Helduen euskalduntzean diharduten *irakasleak etengabeko prestakuntza* prozesu batean murgildu beharra izan dute eguneroko irakas-praktika ikerketa bidetik zuzentzeko. Prestakuntza horretan alderdi psikopedagogikoaren garrantzia azpimarratu da. Bestalde, arlo ezberdinetako gaiak landu izana eta jatorri eta esperientzia ezberdina duten irakasleek partehartzeak ikasleen prestakuntzarako aberasgarria suertatu da.

Irakasleen prestakuntzan jarduteko zenbait gogoeta:

- Irakaskuntzako garapen profesionala lanaren birreraikitze kritiko eta eraginkortasunarekin lotu beharra.

- Garapen pertsonalari lagundu beharra norbere buruari buruzko hausnarketa kritikoa bultzatze bidez.
- Irakasleen formakuntzarako ekintza profesional esanguratsuak horretarako gaitasuna duten erakundeek bultzatu behar dituzte.